

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

#### **113/2022 Foru Agindua, martxoaren 9koa. Onestea lurralde historiko honetako abeltzaintza ustiatzei beren osasun arriskuak estaltzen dituzten abeltzaintza aseguruak kontratatzeako 2022ko dirulaguntzen deialdia**

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 14ko 12/2017 Foru Dekretuaren bidez (Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 15eko 27/2021 Foru Dekretuak aldatua), onespena eman zitzaizen Lurralde Historiko honetako abeltzaintza ustiatzei osasun arriskuak estaltzen dituzten abeltzaintza aseguruak kontratatzen laguntzeko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak.

Dekretu horren 4. artikulua xedatzen duenez, urtero laguntza deialdi bat onetsiko da. Deialdian, eskaerak aurkezteko epea adierazi, eta dirulaguntzak emateko erabiliko den kreditua eta diruz lagundu daitezkeen polizak izenpetzeko aldia zehaztuko dira.

Kreditu bat hornitu da, 60.000,00 eurokoa, Arabako Foru Aldundiaren 2022ko ekitaldirako gastuen aurrekontuko "Abeltzaintzako Aseguruak Kontratatzea Sustatzea" izeneko 40102. G/419402/47900406 partidan.

Azaldutako guztiagatik, proposatzen da onestea Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintza ustiatzei osasun arriskuak estaltzen dituzten abeltzaintza aseguruak kontratatzen laguntzeko 2022ko dirulaguntzen deialdia.

Aginduzko txostenak aztertuta, horregatik eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintza ustiatzei beren osasun arriskuak estaltzen dituzten abeltzaintza aseguruak kontratatzen laguntzeko 2022ko dirulaguntzen deialdia. Dirulaguntza horiek Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 14ko 12/2017 Foru Dekretuan (Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 15eko 27/2021 Foru Dekretuak aldatua) adierazitako oinarriek arautuko dituzte.

Bigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak 60.000,00 euroko kreditua gorde dezala, Arabako Foru Aldundiaren 2022rako gastuen aurrekontuko "Abeltzaintzako Aseguruak Kontratatzea Sustatzea" izeneko 40102. G/419402/47900406 partidaren kontura (zorpekin erreferentzia: 22.1.22.105.829/000).

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahalko da Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21.2.b) artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidan edozein zioengatik gerta daitezkeen kredituaren gehikuntzagatik ere.

Hirugarrena. Eskaerak aurkezteko epea 2022ko ekainaren 1etik 15era arte izango da, egun biak barne.

Eskaerak hemen aurkeztu behar dira:

Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean.

Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroetan.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroetako batean.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek egoitza elektronikoa (<https://egoitza.araba.eus/es/-/tr-ayudas-segueros-ganaderos>) dagoen izapide zehatzaren bitartez telematikoki aurkeztera behartuta daude: pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak, elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzan dutenak.

Laugarrena. 2021eko ekainaren 1etik 2022ko maiatzaren 31ra bitartean (bi egun horiek barne) izenpetutako poliza guztiak onartuko dira.

Bosgarrena. Ulertuko da "bazka galera" arriskuaren barruan sartzen direla 12/2017 Foru Dekretuan (27/2021 Foru Dekretuak aldatua) aipatutako "udako eta neguko bazka galera" izeneko arriskuak.

Seigarrena. Foru agindu honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta beronen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok eman duen organoari berari, hila-beteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 9a

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*  
**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*  
**MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**